

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresak bezeroekin mantenduko dituen harremanak zehaztuko ditugu. Horretarako bi harreman moten arteko konbinazio bat egingo dugu.

Alde batetik, zerbitzu automatizatua erabiliko dugu. Zerbitzu hau webgune baten bidez emango dugu, bertan bezeroek beraien eskabideak egin ahal izango dizkigute denda fisiko batera joan beharrean, hau da, modu azkarrago bat izango da.

Bezeroak, produktuarekin arazoren bat edukiz gero, zerbitzu automatizatu honen bidez jakinaraziko digute. Arazo hori konpontzeko, gure enpresa banatzaileaz baliatuko gara produktua gure enpresara itzularazteko eta beste berri bat bezeroari helarazi ahal izateko.

Bestalde, bezeroen zalantzak argitzeko beste zerbitzu bat eskainiko diegu, ohikoagoa eta denon eskuragarriagoa izango dena. Hau, zerbitzu automatizatua izango da; hots, telefonoz bidezkoa. Gure enpresak telefono zenbaki bat izango du, eta edozein bezerok galderaren bat egin nahi izanez gero, telefono horretara deitzea besterik ez du.

Etorkizunean, gure enpresaren bigarren fasean, hau, enpresa fisiko bihurtzeko proiektua dugu. Orduan, beste azken harreman mota bat edukiko genuke; hau da, zerbitzu pertsonal bat. Bezeroekin aurrez aurre arituko gara.

